

Koch familiak San Telmo Museoari dohaintzan eman dio Sigfrido Koch Bengoetxea eta Sigfrido Koch Arruti argazkilarien artxibo-bilduma

Bien lanak kalitate bikaina dauka, eta, horrenbestez, artxibo horiek interes handikoak dira argazkiaren historiarako, paisaia, landa-giroko eta itsas giroko irudi eta erretratueta askok artxibo izugarri interesgarria osatzen baitute, euskal gizartea eta haren irudikapena aztertzeko baliagarri.

San Telmo Museoa familiaren eskuzabaltasuna nabarmendu eta eskertu nahi du, garrantziko dohaintza horrek indartu egiten duelako museoak ondarearen kontserbazio eta zabalkunderako betetzen duen zeregina, eta, horrez gain, euskal gizartea hobeto ezagutzea ahalbidetzeko elementuak dakartzalako, Donostiako bi argazkilari ospetsu horien protagonista nagusietako bat euskal gizartea baita.

Hainbat negatibo, plaka, diapositiba eta positibo bildu dira bilduman, baita “gerraren albuma” ere, Koch Bengoetxearen Gerra Zibilari buruzko materiala, ustekabe garrantzitsua suposatuta duena.

Dohaintza hau jasotzearekin batera, museoak bere gain hartzen du bilduma osatzen duten lanak kontserbatu eta zabaltzeko konpromisoa.

Hasierako prozesu teknikoaren barruan, bilduma osatzen duten material guztiak erregistratu, katalogatu eta lokalizatzen dira. Horrez gain, museoak bilduma digitalizatzeko plan bat egin eta martxan jarriko du, eta webgunearen eta bilduma-katalogoaren bitartez zabalduko du.

Gainera, Sigfrido Koch Bengoetxearen funtsarekin antolatuko den lehen erakusketarako lana hasi da dagoeneko. Hurrengo hiru urteen barruan egingo da, Lee Fontanella komisarioaren gidaritzapean.

Bi bildumei buruzko datuak:

- S. Koch Bengoetxearen bilduma: kristalezko 147 plaka; plastikozko 656 plaka; 35 mm-ko 36 negatibo; *País Vasco. Guipúzcoa* liburuaren jatorrizko maketa, 138 positibatu barne; eta *Gerraren albuma*, formatu txikiko 231 argazki eta hainbat ilustrazio, egunkari zati eta dokumentu-fotokopiaz osatua.

- S. Koch Arrutiren bilduma: askoz ere zabalagoa da. Gutxi gorabehera 5.000 diapositibak, negatibo-artxibategi ugari, handitzeak, fotolitoak, San Telmon egindako erakusketaren argazki markoztatuek eta publizitate-lanetako negatibo eta diapositibek osatzen dute bildumaren zati nagusia.

Material horiei guztiei museoak lehendik zeuzkanak erantsi behar zaizkie: Willy Koch Schoneweissen 29 (argazkiak, artelanen argazki eta postalak), S. Koch Bengoetxearen bat, eta S. Koch Arrutiren lau argazki.

Dohaintza behar bezala balioetsi ahal izateko, Museoak bi aditurengana jo du bildumari buruzko aholku bila, batetik, Lee Fontanella Argazkiaren Historialari eta Ikertzailearengana, eta, bestetik, Carlos Cánovas argazkilariarengana.

Bilduma

Bilduma Lee Fontanellaren ikuspegitik

“Funtsean desberdinak diren materialen bi artxibo dira azken batean, neurri batean soilik lotzen diren bi estiloren adierazgarri, azken hori are esanguratsuagoa izanik. Funtsean piktorialistatza jo ditzakegun arren, Koch Bengoetxea aitaren piktorialismoa zuri-beltzezko argazkietan eta argazki klase horrek eman ditzakeen *chiaroscuroetan* oinarritzen da; Koch Arrutiren estiloa, aldiz, oso pertsonalki kontrolatutako eta korapilatutako koloreen paleta batean oinarritzen da nagusiki.

Itxuraz gehien interesatzen zaizkien gaietan, ordea, antzekotasunak aurki daitezke sarritan, Koch Bengoetxearen “Gerraren albumaren” salbuespen nabariarekin. Begi-bistakoa da gai horiek Euskal Herriko gaiak direla, San Telmoren interes nagusiekin bat etorritik, eta hori nabaria da “Gerraren albumaren” kasuan ere, Konplutentseko unibertsitate-hirian hartutako argazkiak gorabehera.

Dirudenez, Koch Arrutik egindako irudiak ezagunagoak dira Koch Bengoetxeak egindakoak baino. Izan ere, azken honen lanari dagokionez, jendearentzat ezezaguna den zatia da, hain zuzen ere, aitaren artxiboari egundoko balioa ematen diona.

Bi ondareak kuantitatiboki konparatuz gero, Koch Arrutirena askoz ere oparagoa da: 5.500 objektu, gutxi gorabehera. Koch Arrutiren artxiboaren interesa Euskal Herrian finkatuagoa dagoela iruditzen zait, baina ez Euskal Herrian soilik. Koch Bengoetxearen kasuan hori ez da hain nabaria, “Gerraren albumean” bereziki, ikuspegi nagusia Euskal Herrian kokatzen badu ere, Euskal Herrira ez delako mugatzen, arrazoi historiko eta ideologikoak tarteko.”

Bilduma Carlos Cánovasen ikuspegitik

“Zenbait ezaugarriengatik, Koch Bengoetxearen lana bikaina dela esan dezakegu. Bere lanaren planteamendu estetikoaren eta formulazioaren ezaugarri batzuk ondo uztartzen dira egilearen denbora-esparruan. Teknikoki primeran egindako hainbat bista/paisaia, eszena eta erretratu dira, garaiko ohiko praktiketatik edan badute ere egileak “garbitasun” bikainarekin jorratu zituenak. Ongi prozesatutako formatu ertaineko negatibo eta 9x12 cm-ko plaketatik abiatuta, argazkilariak euskal nortasunaren definiziora hurbiltzeko ahalegina egin zuen, eta horren zati bat primeran argitaratuta amaitu zela esan dezakegu. Irudi horiek praktika piktorialistekin lotzen dituen lerroa atzeman daiteke, praktika horiek indarrean zeudelako, neurri batean, argazkiak lortu (edo eszenaratu, kasu batzuetan) ziren urteetan. Espainian, oro har, “klasizismo” hori ohikoa zen. Esan dezakegu, halaber, irudi horiek argazki mota horren nolabaiteko gainbehera ematen dutela aditzera (esaterako, formatu txikiataranzko eta bat-batekotasun malguagoranzko bilakaera agertzen hasia zen toki orotan). Tartean positiboak izatea funtsaren balioespenaren mesedetan doa. Ikusi dudan liburu-maketaren kopietan, argazki-hartzea (konposizioa) zein irudien tratamendu tonala (kopia) kontu handiz zaindu direla geratzen da agerian. Egitura bikaina da.

Bere aitaren obraren aldean, Sigfrido Koch Arrutiren lanean zenbait bereizgarri nabari ikus ditzakegu: zabalagoa eta askoz ere berriagoa da, eta seguru, “ezagunagoa” ere bai. Estetikaren alorrean, ordea, sentsibilitatean eta lanean bat dator aitarekin, kasu honetan ere alde handiak nabari diren arren. Bere geografia- eta lurralde-eremuarekiko lotura ezin daiteke zalantzan jarri, eta eremu horren eta bere gogoaren interpretazioan lortu zuen oso argazkilari-nortasun zehatz bat ezartzea. Gaiei dagokienez, Koch Bengoetxearen kasuan aipatu ditugun ohiko gaiak dira, hala nola paisaiak, landa-giroko edo itsas giroko eszenak, natura hilak, erretratuak, etab., baina kolorearen (kolore jakin baten) eta argiaren (argi jakin baten) erabilerak nortasun bat taxutu zuen isla piktorialista bati loturik, nik poetika jakin batetik gertu kokatuko nukeena. Jendeak eta instituzioek oro har bereziki oso begi onez ikusi zuten Koch Arrutiren estilo hori, nahiz eta bere lankideetako askok “flouaren” eta desfokuratzearen estetika gozoez gertuegi zegoela uste zuten.

Nolanahi dela ere, bere irudiak euskal nortasunaren ikus-definizio “areagotuzat” eta oro har onartuzat jo izan ziren batzuetan. Bere erretratu eta pertsonaia sorta bere kezka formalen adierazgarri ezin hobea da, eta argia eta girotzea aztertzean zerabilen zehaztasuna eta horretan jartzen zuen ardura uzten du agerian. Gai horiek gorabehera, Koch Arruti abstraktuaren alorreko beste esperimendu batzuetan murgildu zen, eta denborarekin joera hori gorpuzten joan zen. Materialez argazkilaritzaren ohiko erabileratik kanpo nola erantzuten duten ikertzeko jakin-min handia erakutsi zuen alor horretan.”

Gerraren albuma

Gerraren albuma Carlos Cánovasen ikuspegitik

“Bere ezaugarriak direla-eta, album hau bereziki nabarmentzekoa da artxibo hauen guztien artean. Argazki txikiak dira, album batean itsatsiak, 9 edo 10 argazki albumaren orri bakoitzean, guztira 270 irudi, gutxi gorabehera. Argazkien egilearen inguruko xehetasunik ez dago, eta beraz bereak eta besterenak nahastuta egon litezke, horri buruz behar adinako informaziorik ez badut ere. Dokumentu eta/edo marrazkietako erreproduzio batzuk ere badaude. Irudi horietako gehienek ikuspegi berri bat ematen digute gerra zibilaren toki, pertsonaia, ekipamendu eta beste hainbaten inguruan, baina beste jatorri batzuetako argazki batzuk ere badaude.

Argi dago irudi hauek erakusgai jarri eta/edo argitaratuko balira, kontuan hartzeko moduko norainokoa eta oihartzuna izango luketela. Koch Bengoetxearen argazkiek —eta, batez ere, Koch Arrutirenek— baino askoz ere toki-interes txikiagoa dute. Benetako dokumentu ezezagunak dira, Espainian eta Espainiatik haratago ere oihartzun zabala eragingo luketenak. Hori bai, album bat izaki, irudiak txikiak dira, baina dokumentu-balio izugarri interesgarria dute nolanahi ere. Hainbeste denboran argia ikusi gabe egon izanak dimentsio berezia ematen die, are garrantzitsuagoa kontuan hartzen badugu albumean, Euskal Herriko argazkiak ez ezik, beste hainbat tokitako argazkiak ere bildu direla.”

Gerraren albuma Lee Fontanellaren ikuspegitik

“Hasteko esango nuke “Gerraren albuma”, nazioarteko panoramaren ikuspegitik, “albiste bat” dela bizirik dauden espainol guztientzat, eta albiste hori askoz ere garrantzitsuagoa dela Pirinioez bestaldeko edozein historialarientzat. Garrantzi handiko ondarea da mundu osoko jabetza intelektualarentzat, eta Euskal Herriko erakunde handi batean biltegitatu da.

GIPUZKOAKO maketaren positibo gehienek eta artxibo honen plaketako askok (Koch Bengoetxea) beste joera bat erakusten dute, berriz ere piktorialismoaren zantzuak atzeman daitezkeelako, itxuraz argazkilariak joera hori hartu zuelako euskarri, baita gaztaroko Gerra Zibilaren esperientziaren ondoren ere.”

Datu biografikoak

(Iturria: Auñamendi Entziklopedia)

Sigfrido Koch Bengoetxea

Argazkilari [donostiarra](#), 1908an jaioa, Willy Koch pintore eta argazkilariaren semea. Donostian hil zen, 1973. urtean.

1936an erbesteratu zen, Alemaniara bidea hartuz. Hara iristean, ordea, armada alemanaren batailoiei batean mobilizatu zuten, alemaniar nazionalitatea zuela-eta, eta frontera bidali zuten. Bigarren urtean ihes egitea lortu zuten, baina amerikarrek harrapatu zuten ostera, eta preso-esparru batean sartu. Geroago, handik ere ihes egitea lortu zuen. Oinez eta esku-hutsik Suitzara iritsi zen, eta, herrialde osoa oinez zeharkatu ondoren, azkenean Euskal Herrira itzultzea lortu zuen. Une hartatik aurrera, argazkilaritza landu zuen, eta sari-zerrenda oparoa lortu zuen. Nahi duenak argazki sarituetako asko eta beste hainbat miretsi ditzake *País Vasco. Guipúzcoa* liburuan (Bilbo, 1948). 143 ilustrazio dauzka guztira, eta F. Arocenaren, J. de Artecheren eta D. Azkueren hitzak.

Sigfrido Koch Arruti

Argazkilaria, 1936ko otsailaren 28an [Donostian](#) jaioa. 1992ko apirilaren 27an hil zen.

Donostian sustraitutako jatorri alemaneko artista eta argazkilarien leinu baten jarraitzailea. Familiaren negozioan laguntzaile hasi zen, lana eta ikasketak uztartuz. Pintura eta marrazkia ikasi zuen, lau urtez, Donostiako Arte eta Lanbide Eskolan.

Hemeretzi urte zituela argazkilaria izatea erabaki zuen, Donostian ordurako ezaguna zen bere aita eta [Willy](#) aitona bezala. Aitak laguntzaile gisa hartu zuen, eta laster Bartzelonara bidali zuen, Ballet-en ondoan ikas zezan, garai hartan argiztapenez gehien zekiten argazkilarietako bat baitzen. Ondoren Alemaniara joan zen, eta bertan bi urte eman zuen ikasten eta lanean. Besteak beste, pelikulak errebelatzen eta bere iragazki propioak egiten ikasi zuen egonaldi hartan. Ondoren, Holandan eta Belgikan denboraldi batzuk eman zituen, profesional handien laguntzaile gisa lanean. Espainiara bueltan, Madrilan ezarri zen, eta Rasgo Grey agentziako argazkilari eskusibo gisa jardun zuen,

hainbat aldizkaritarako kolaborazioak eginez eta publizitate-iragarkiak zuzenduz aldi berean. Bost urte geroago Bilbora joan zen, eta gero Donostian ezarri zen, argazkilaritzan eta publizitate-zinemagintzan lanean.

Banako erakusketa ugari egin zituen, besteak beste: Donostiako Kultur eta Turismo Ekintzetxea (1976. urtea), Getxoko Kultur Etxea (1976. urtea), Donostiako San Telmo Museoa (1977. urtea), Bilboko Foto Arte (1977. urtea), Barakaldoko Udal Erakusketa Aretoa (1977. urtea), Gasteizko Sokaren Etxea (1977. urtea).

Argazki-liburu bikainak ere egin ditu, hala nola *Euskalherria, neure ametsa* (1977), *Itxaskaria: Los euskaros y el mar* (1978), *Misterio de Vizcaya* (1981), edo *San Sebastián: ciudad abierta* (1989). Argazki horietan, artistaren begirada poetikoa nabari da, bere herria irudikatzeko duen ikuspegi berezia.

1993ko abenduan, San Telmo Museoa *La nostalgia acumulada* erakusketa handia antolatu zuen Koch Arrutiren lana erakusgai jartzeko, zenbait ataletan banatua: *Mar abierta*, non itsas gaietako argazki sorta bat aurkeztu zuen, bere-sormen-lanaren alor ezagunenetako batekin bat eginez; *Tierra añorada*, landa-giroari buruzko ikuspegi berezi batekin; *La ciudad: San Sebastián*, artistaren kamerak hautatutako toki bereziak biltzen dituen; eta *Retratos*, euskal kulturaren munduko artista eta pertsona ospetsuak — [Chillida](#), [Oteiza](#), [Ibarrola](#), [Gabriel Celaya](#), [Joxe Migel Barandiaran](#) eta [Julio Caro Baroja](#), besteak beste— elkartzen dituen dokumentu garrantzitsu bat. Azken atalean (*Fotopintura: Naturaleza y Artificio*) artistak esperimendatzen du argazkiarekin baino pinturarekin zerikusi handiagoa duten elementuekin.

Besteak beste, Kutxaren Boulevard Aretoan (2010) eta Photomuseumen (2015) ere antolatu dituzte erakusketak haren argazkiak erabiliz.

La familia Koch dona a San Telmo Museoa la colección formada por los archivos de los fotógrafos donostiarros Sigfrido Koch Bengoetxea y Sigfrido Koch Arruti

La calidad del trabajo de ambos convierte estos archivos en material de gran interés para la historia de la fotografía y muchas de sus imágenes de paisajes, escenas rurales o marineras, o retratos constituyen un archivo de enorme interés para el estudio de la sociedad vasca y de su representación.

San Telmo Museoa quiere destacar y agradecer la generosidad de la familia y la importancia de una donación que refuerza la labor del museo tanto en su contribución a la conservación y difusión del patrimonio como en la de aportar elementos para el mejor conocimiento de la sociedad vasca, que es una de las principales protagonistas del trabajo de estos dos reconocidos fotógrafos donostiarros.

La colección incluye un gran número de negativos, placas, diapositivas, positivos y el llamado “álbum de la guerra”, un material de Koch Bengoetxea sobre la Guerra Civil que constituye una valiosa sorpresa.

Al recibir esta donación, el museo se compromete a realizar una labor de conservación y difusión de la obras que componen la colección.

Además del proceso técnico inicial -registro, catalogación y localización de todos los materiales que la componen-, el museo elaborará y pondrá en marcha un plan de digitalización de la colección y la difundirá a través de su página web así como a través de su catálogo de colecciones.

Además, se ha iniciado ya el trabajo para la primera muestra expositiva con el fondo de Sigfrido Koch Bengoetxea, que se llevará a cabo dentro de los próximos tres años y estará comisariada por Lee Fontanella.

Datos sobre las dos colecciones:

- Colección S. Koch Bengoetxea: formada por 147 placas de cristal; 656 de plástico; 36 negativos de 35 mm.; la maqueta original del libro *País Vasco. Guipúzcoa*, con 138 positivados; y el Album de la guerra, con 231 fotografías de pequeño formato e ilustraciones, recortes de periódicos y fotocopias de documentos.
- Colección S. Koch Arruti: mucho más cuantiosa, la componen fundamentalmente diapositivas, en torno a 5.000 unidades; numerosos archivadores de negativos; ampliaciones; fotolitos; fotografías enmarcadas de la exposición que se realizó en San Telmo; y negativos y diapositivas de trabajos publicitarios.

Todos estos materiales se suman a los que el museo ya tenía: 29 de Willy Koch Schoneweiss (fotos, postales y fotos de obras artísticas), una de S. Koch Bengoetxea; y cuatro de S. Koch Arruti.

Para poder valorar adecuadamente la donación, el museo ha solicitado asesoramiento sobre la colección a dos expertos: Lee Fontanella, Historiador e Investigador de la Fotografía, y el fotógrafo Carlos Cánovas.

La colección

La colección vista por Lee Fontanella

“Se trata en realidad de dos archivos de materiales fundamentalmente distintos y, más significativo aún, dos estilos que se interrelacionan hasta cierto punto solamente. Aunque se les puede considerar pictorialistas en su fondo, el pictorialismo del padre, Koch Bengoetxea, se basa en tomas en blanco y negro y en los *chiarosuros* que es capaz de rendir esa clase de fotografía, mientras que el de Koch Arruti se basa principalmente en una paleta de colores muy personalmente controlados, entretejidos.

En lo que sí se parecen muchas veces es en la temática que aparentemente más les interesa —con la notable excepción del “álbum Guerra” de Koch Bengoetxea. Dicha temática pertenece muy evidentemente al País Vasco, punto de interés esencial para San Telmo, y esto es evidente incluso en el caso del “álbum Guerra”, pese a las tomas conseguidas en la ciudad universitaria de la Complutense.

Las imágenes realizadas por Koch Arruti parecen ser más conocidas que las de Koch Bengoetxea. De hecho, la porción de la obra de este que es completamente desconocida por el público es precisamente la que presta un valor difícilmente estimable al archivo del padre.

Comparando los dos legados cuantitativamente, el de Koch Arruti es mucho más numeroso: unos 5.500 objetos aproximadamente. El interés del archivo Koch Arruti me parece más afinado— aunque no de modo exclusivo— en el País Vasco. Esto no es tan claro en el caso de Koch Bengoetxea, especialmente con el “álbum Guerra” que, a pesar de su enfoque principal en País Vasco, por razones históricas e ideológicas no se limita a País Vasco.”

La colección vista por Carlos Cánovas

“El trabajo de Koch Bengoetxea tiene algunas características que lo hacen más que estimable. El planteamiento estético y la formulación de su obra presentan rasgos que se sitúan bien en su marco temporal. Se trata de un conjunto de vistas/paisajes, escenas y retratos técnicamente muy bien realizados, deudores de las prácticas habituales en la época, pero que el autor lleva a cabo con una “pulcritud” muy notable. A partir de negativos de formato medio y de placas 9x12 cm, cuidadosamente procesadas, el fotógrafo quiso acercarse a una definición del espíritu de lo vasco que terminaría parcial y excelentemente publicado. Puede percibirse la línea que une estas imágenes con prácticas pictorialistas que, de algún modo, seguían estando presentes en los años en que las fotografías fueron obtenidas (o escenificadas en algunos casos). En España, en general, ese “clasicismo”, llamémosle así, era frecuente. También se podría decir que estas imágenes evidencian ya un cierto declive de este tipo de fotografía (la evolución, por ejemplo, hacia los formatos

reducidos y hacia una instantaneidad menos rígida estaban haciendo acto de presencia en todas partes). El hecho de que existan positivos incrementa la valoración del fondo. En las copias de la maqueta-libro que he podido ver, queda de manifiesto el cuidado tanto en lo que se refiere a la toma (composición) como en el tratamiento tonal de las imágenes (copia). La factura es impecable.

La obra de Sigfrido Koch Arruti presenta, en relación con la de su padre, algunos rasgos diferenciales evidentes: es más cuantiosa, mucho más reciente y, con seguridad, también más “popular”. Sin embargo, en el plano estético, su sensibilidad y su labor entroncan bien con las de su progenitor, aunque las diferencias sean también acusadas. La conexión con su ámbito geográfico/territorial es incuestionable, y en la interpretación del mismo y de su espíritu consiguió establecer una personalidad fotográfica muy bien definida. Temáticamente son los asuntos habituales que hemos señalado en Koch Bengoechea -paisajes, escenas rurales o marineras, bodegones, retratos, etc.-, si bien el uso del color (de un cierto color) y de la luz (de una cierta luz) terminaron por perfilar una personalidad ligada a un reflejo pictorialista que yo situaría cercano a una poética que tanto gozó del favor popular e institucional como de las críticas de muchos de su colegas, que vieron en el estilo de Koch Arruti demasiada proximidad con la estética un tanto almidonada del “flou” y del desenfoque.

Sea como fuere, sus imágenes fueron a veces consideradas como definiciones visuales “intensificadas” y generalmente aceptadas de lo vasco. Su galería de retratos y personajes constituye un excelente ejemplo de sus preocupaciones formales y de la minuciosidad y el cuidado en el estudio de la luz y de la ambientación. Al margen de esas temáticas, Koch Arruti también practicó en ocasiones otros experimentos, que fueron creciendo con el tiempo, en el ámbito de la abstracto, en los que acreditó una gran curiosidad por la respuesta de los materiales fuera del uso habitual en la fotografía.”

El álbum de la guerra

El álbum de la guerra visto por Carlos Cánovas

“Las características de este álbum le otorgan un indudable protagonismo en el conjunto de estos archivos. Se trata de fotografías pequeñas, adosadas en un álbum, a razón de 9 o 10 fotografías por cada hoja del mismo, hasta un total cercano a las 270 imágenes. La autoría de las fotografías no se detalla, pudiendo mezclarse propias y ajenas, aunque sobre este extremo no tengo la información suficiente. Hay también algunas reproducciones de documentos y/o dibujos. La gran mayoría de estas imágenes implican una visión nueva de diferentes aspectos de la guerra civil (lugares, personajes, equipamientos, etc.), aunque también hay algunas fotografías de otras procedencias.

Es incuestionable que estas imágenes tendrían un considerable alcance y repercusión en el caso de su exhibición y/o publicación. Su interés es mucho menos local que el de las fotografías de Koch Bengoechea y, sobre todo, que las de Koch Arruti. Son verdaderos documentos, desconocidos, que suscitarían una amplia repercusión, desde luego no solo en España. Tratándose de un álbum, eso sí, las imágenes tienen un formato pequeño, pero aún así su valor documental es de enorme

interés. El hecho de haber permanecido inéditas durante tanto tiempo les añade una dimensión especial, que por otro lado se incrementa al haber en el álbum fotografías de diferentes lugares, no solo del País Vasco.”

El álbum de la guerra visto por Lee Fontanella

“Comenzaría por decir que el “álbum Guerra” (desde el punto de vista del panorama internacional) es “una noticia” para una mayoría de españoles vivos, y lo es múltiples veces más para cualquier historiador allende los Pirineos. Se trata de un legado de mucha importancia para la propiedad intelectual de todo el mundo, almacenado en una gran institución del País Vasco.

En su mayoría, los positivos de la maqueta de GIPUZKOA, y muchas de las placas que pertenecen a este archivo (Koch Bengoetxea), son de otra tónica diferente, y retoman el pictorialismo del que se supone se nutría este fotógrafo, y en que se habría apoyado incluso después de la experiencia de la Guerra Civil de su juventud.”

Datos biográficos (fuente: Enciclopedia Auñamendi)

Sigfrido Koch Bengoechea

Fotógrafo [donostiarr](#) nacido en 1908, hijo del pintor y también fotógrafo Willy Koch. Murió en San Sebastián en 1973.

Exiliado en 1936, marchó a Alemania. A su vuelta, fue movilizado, debido a su nacionalidad alemana, en un batallón del ejército alemán siendo enviado al frente. Consiguió evadirse al segundo año y, capturado por los americanos, fue recluido en un campo de prisioneros del que también logra, al cabo de un tiempo, escaparse. A pie y sin mayor equipaje consigue llegar a Suiza que recorre clandestinamente hasta conseguir la vuelta al País Vasco. A partir de estas fechas cultiva la fotografía obteniendo un magnífico palmarés de premios. Muchas de sus fotografías premiadas y otras pueden admirarse en el libro *País Vasco. Guipúzcoa* (Bilbao, 1948) dotado de 143 ilustraciones y texto de F. Arocena, J. de Arteche y D. Azkue.

Sigfrido Koch Arruti

Fotógrafo nacido en San Sebastián el 28 de febrero de 1936. Fallece el 27 de abril de 1992.

Continuador de una estirpe de artistas y fotógrafos de origen alemán enraizados en San Sebastián. Comenzó trabajando como ayudante en el negocio familiar, compaginando el trabajo con estudios durante cuatro años de pintura y dibujo en la Escuela de Artes y Oficios de San Sebastián.

Con diecinueve años decide ser fotógrafo como su padre, ya famoso en San Sebastián, y como su abuelo Willy. Su padre le acepta como ayudante y pronto le envía a Barcelona, para estudiar junto a Ballet, uno de los fotógrafos que más sabían de

iluminación en aquella época. Posteriormente se traslada a Alemania donde estudia y trabaja durante dos años y aprende a revelar las películas y a fabricar sus propios filtros. Seguidamente pasa temporadas como ayudante de grandes profesionales en Holanda y Bélgica. De vuelta a España se instaló en Madrid, trabajando como fotógrafo exclusivo en la agencia Rasgo Grey, colaborando al mismo tiempo en numerosas revistas y dirigiendo spots publicitarios. Al cabo de cinco años, marchó a Bilbao y luego se estableció en San Sebastián, dedicándose a la fotografía y cine publicitario.

Realiza numerosas exposiciones individuales, entre las que destacan: Centro de Atracción y Turismo de San Sebastián (año 1976), Aula de Cultura de Getxo (año 1976), Museo San Telmo de San Sebastián (año 1977), Foto Arte de Bilbao (año 1977), Sala Municipal de Exposiciones de Barakaldo (año 1977), Casa del Cordón de Vitoria (año 1977).

Destacan también sus libros de fotografías, como *Euskalherria, neure ametsa* (1977), *Itxaskaria: Los euskaros y el mar* (1978), *Misterio de Vizcaya* (1981), o *San Sebastián: ciudad abierta* (1989). En estas fotografías se dejaba patente la mirada poética del artista, su peculiar visión de retratar a su país.

En el mes de diciembre de 1993 el Museo de San Telmo acoge una importante exposición sobre su obra, *La nostalgia acumulada*, dividida en varios apartados: *Mar abierta*, en la que se presentaban una serie de fotografías de temas marineros, una de sus facetas creativas más conocidas, *Tierra añorada*, con una visión peculiar sobre lo rural, *La ciudad: San Sebastián*, recogiendo los peculiares lugares elegidos por la cámara del artista y *Retratos*, un importante documento en el que desfilan artistas y personalidades del mundo de la cultura vasca: [Chillida](#), [Oteiza](#), [Ibarrola](#), [Gabriel Celaya](#), [Joxe Migel Barandiaran](#) y [Julio Caro Baroja](#) entre otros. En el último apartado, *Fotopintura: Naturaleza y Artificio*, el artista experimenta con otros elementos ya no puramente fotográficos sino pictóricos.

Entre otras, también se han realizado exposiciones con sus fotografías en la Sala Boulevard de Kutxa (2010) y en Photomuseum (2015).